



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2012ko azaroaren 14a

95. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

- Foru Lege proiektua, 2013rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzkoa. Zuzenketa partzialak aurkezteko epearen luzapena (3. or.).
- Foru Lege proiektua, zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzekoa. Zuzenketa aurkezteko epearen aldaketa (3. or.).

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

- Foru Lege proposamena, Nafarroako ekintzaileei eta lan autonomoari laguntzeari buruzkoa. Osoko Bilkurak aintzat hartua (4. or.).
- Foru Lege proposamena, bermatutako prestazio sozialak eta ikasketetarako beka enbargaezin deklaratzeko dituen. Osoko Bilkurak aintzat hartua (4. or.).
- Foru Lege proposamena, Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legea aldatzen duena. Osoko Bilkurak aintzat ez hartua (4. or.).
- Foru Lege proposamena, apirilaren 28ko 9/2010 Foru Legea aldatzen duena. Osoko Bilkurak aintzat ez hartua (5. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da gure autogobernua eta osasunaren arloan dituen eskumenak defenda ditzan eta estaldura unibertsaleko osasun laguntza ziurta dezan. Osoko Bilkurak onetsia (6. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da lankidetzeta eta finantzaketa egonkorra ezar dezan “Fundación Tutelar de Navarra” fundazioarekin. Osoko Bilkurak onetsia (6. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da beka- eta laguntza-sistema bat ezar dezan eskola-material suntsikorra eta/edo osagarria erosten laguntzeko, testuliburuaren doakotasunari buruzko programaren onuradun diren ikasleentzat. Osoko Bilkurak onetsia (7. or.).

- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Neurri Judizialak Betetzeko Adingabeentzako Ilundaingo Zentroko errotulua elebiduna izan dadin. Gizarte Politiketako Batzordeak onetsia (7. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bere gain hartutako finantzaketa ziurta dezan toki-azpiegituretako obretan. Osoko Bilkurak bazter utzia (8. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroa osoan errespetatuz euskaldunen hizkuntza eskubideak. Osoko Bilkurak bazter utzia (8. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Osasun Departamentua premiatzen da errezeta elektronikoaren sisteman programa bat ezar dezan, ekidite aldera erabiltzaileek dirua aurreratzea. Mozioa erretiratzea (8. or.).

G SAILA:**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Lantaldea, aztertzekoa Nafarroako Gobernua eta Gobernu Zentrala behin eta berriz egiten ari diren murrizketak zer ondorio eta kalte ekartzen ari zaizkien herritarrei. Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Batzordeak bazter utzia (9. or.).
- Lantaldea, aztertzekoa parlamentu-taldeek aurkeztutako tributu- eta zerga-aldaketei buruzko proposamenak. Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Batzordeak onetsia (9. or.).
- 2013rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektua izapidetzeko egutegia aldatzea (10. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege proiektua, 2013rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzkoa.

ZUZENKETA PARTZIALAK AURKEZTEKO EPEAREN LUZAPENA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko azaroaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, ondoko erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. 2013rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektuari zuzenketa partzialak aurkezteko epea **2012ko azaroaren 23ko 13:00ak** arte luzatzea. Aipatu foru lege proiektua

2012ko azaroaren 2ko 88. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2012ko azaroaren 12an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Foru Lege proiektua, zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzekoa.

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEAREN ALDAKETA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko azaroaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, ondoko erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Aldatzea zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeko Foru Lege proiektuari zuzenketak aurkezteko epea, eta xedatzea parlamentu-taldeek eta foru parlamentariak osoko zuzenketak aurkezteko epea **2012ko azaroaren 19ko 10:00etan** amaituko dela, eta zuzenketa

partzialak aurkezteko epea **2012ko azaroaren 28ko 12:00etan** amaituko dela. Aipatu foru lege proiektua 2012ko azaroaren 5eko 89. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2012ko azaroaren 12an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, Nafarroako ekintzaileei eta lan autonomoari laguntzeari buruzkoa.

OSOKO BILKURAK AINTZAT HARTUA

Legebiltzarrak, 2012ko azaroaren 8an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aintzat hartzea Nafarroako ekintzaileei eta lan autonomoari laguntzeari buruzko Foru Lege proposamena. Proposamen hori Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu zuen, eta 2012ko irailaren 26ko 76.

Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2012ko azaroaren 9an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Foru Lege proposamena, bermatutako prestazio sozialak eta ikasketetarako bekak enbargaezin deklaratzeko dituenak.

OSOKO BILKURAK AINTZAT HARTUA

Legebiltzarrak, 2012ko azaroaren 8an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen bermatutako prestazio sozialak eta ikasketetarako bekak enbargaezin deklaratzeko dituen Foru Lege proposamena aintzat hartzea. Proposamen hori Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu zuen, eta

2012ko irailaren 25eko 75. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2012ko azaroaren 9an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Foru Lege proposamena, Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legea aldatzeko duena.

OSOKO BILKURAK AINTZAT EZ HARTUA

Legebiltzarrak, 2012ko azaroaren 8an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aintzat ez hartzea Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeak aurkeztutako Foru Lege proposamena, Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legea aldatzeko duena.

Proposamen hori 2012ko irailaren 17ko 72. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2012ko azaroaren 9an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Foru Lege proposamena, apirilaren 28ko 9/2010 Foru Legea aldatzen duena.

OSOKO BILKURAK AINTZAT EZ HARTUA

Legebiltzarrak, 2012ko azaroaren 8an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aintzat ez hartzea Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak aurkeztutako Foru Lege proposamena, apirilaren 28ko 9/2010 Foru Legea aldatzen duena.

Proposamen hori 2012ko irailaren 25eko 75. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2012ko azaroaren 9an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

E saila:

JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da gure autogobernua eta osasunaren arloan dituen eskumenak defenda ditzan eta estaldura unibertsaleko osasun laguntza ziurta dezan.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2012ko azaroaren 8an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da gure autogobernua eta osasunaren arloan dituen eskumenak defenda ditzan eta estaldura unibertsaleko osasun laguntza ziurta dezan.”

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Honakoa du testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du gure autogobernua eta osasun arloan dituen eskumenak defenda ditzan eta estaldura unibertsaleko osasun laguntza ziurta diezaien

gure erkidegoan bizi diren pertsona guztiei, bai Gizarte Segurantzaz kotizatu ez duten hogeita sei urtetik gorako pertsoneri, bai etorkin guztiei, zein den ere haien lege nahiz administrazio egoera.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, Nafarroako Foru Komunitatean osasunaren alorrean pertsonak dituzten eskubideei eta betebeharrei buruzko azaroaren 8ko 17/2010 Foru Legean ezarritakoari jarraituz, hilabete bateko epean eman dezala erregelamendua izaerako araua aipatu legearen 11. artikulua betetze aldera.”

Iruñean, 2012ko azaroaren 9an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da lankidetzaren eta finantzaketa egonkorra ezar dezan “Fundación Tutelar de Navarra” fundazioarekin.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2012ko azaroaren 9an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da lankidetzaren eta finantzaketa egonkorra ezar dezan ‘Fundación Tutelar de Navarra’ fundazioarekin.” Horren jatorria da Amaya Zarranz Errea andreak aurkeztutako mozio bat, 2012ko irailaren 25eko 75. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratua.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Honakoa du testua:

“1. Laguntza ekonomiko egonkorra bermatuko duen lankidetzaren hitzarmen bat sina dezan ‘Fundación Tutelar de Navarra’ fundazioarekin.

2. ‘Fundación Tutelar de Navarra’ fundazioarekiko lan-esparru egonkor bat susta dezan, fundazioari egonkortasuna eta jarraitutasuna ematen laguntzeko.

3. Tutoretza Gizarte Zerbitzuen Zorroan bermaturiko zerbitzutzat hartzea.”

Iruñean, 2012ko azaroaren 9an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da beka- eta laguntza-sistema bat ezar dezan eskola-material suntsikorra eta/edo osagarria erosten laguntzeko, testuliburuaren doakotasunari buruzko programaren onuradun diren ikasleentzat.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2012ko azaroaren 9an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da beka- eta laguntza-sistema bat ezar dezan eskola-material suntsikorra eta/edo osagarria erosten laguntzeko, testuliburuaren doakotasunari buruzko programaren onuradun diren ikasleentzat".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Honakoa du testua:

"Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du beka- eta laguntza-sistema bat ezar dezan eskola-material suntsikorra eta/edo osagarria erosten laguntzeko, testuliburuaren doakotasunari buruzko programaren onuradun diren ikasleentzat, baldin eta frogatzen badute zailtasun ekonomikoak dituztela eskola-material hori erosteko."

Iruñean, 2012ko azaroaren 9an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Neurri Judizialak Betetzeko Adingabeentzako Ilundaingo Zentroko errotulua elebiduna izan dadin.

GIZARTE POLITIKETAKO BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Gizarte Politiketako Batzordeak, 2012ko azaroaren 7an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Neurri Judizialak Betetzeko Adingabeentzako Ilundaingo Zentroko errotulua elebiduna izan dadin".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Honakoa du testua:

"Nafarroako Foru Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du ele bitan errotula ditzan Ilundaingo Neurri Judizialak Betetzeko Adingabeentzako Zentroko instalazioak, Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legeak gomen datzen duenari jarraikiz."

Iruñean, 2012ko azaroaren 8an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bere gain hartutako finantzaketa ziurta dezan toki-azpiegituretako obretan.

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Nafarroa Bai parlamentu taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bere gain hartutako finantzaketa ziurta dezan toki-azpiegituretako obretan."

Legebiltzarrak, 2012ko azaroaren 8an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako

mozioa baztertzea. Mozio hori 2012ko ekainaren 8ko 56. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2012ko azaroaren 9an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroa osoan errespetatzen dituzten euskaldunen hizkuntza eskubideak.

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Bildu-Nafarroa parlamentu taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroa osoan errespetatzen dituzten euskaldunen hizkuntza eskubideak."

Legebiltzarrak, 2012ko azaroaren 8an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako

mozioa baztertzea. Mozio hori 2012ko irailaren 7ko 70. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2012ko azaroaren 9an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Mozioa. Horren bidez, Osasun Departamentua premiatzen da errezeta elektronikoen sisteman programa bat ezar dezan, ekidite aldera erabiltzaileek dirua aurreratzea.

MOZIOA ERRETIRATZEA

Legebiltzarrak, 2012ko azaroaren 9an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen adieraztea jakinararen gainean dagoela Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa erretiratu izanari dagokionez. Mozio horren bidez Osasun Departamentua premiatzen zen errezeta elektroni-

koaren sisteman programa bat ezar zezan, ekidite aldera erabiltzaileek dirua aurreratzea.

Mozio hori 2012ko irailaren 7ko 70. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2012ko azaroaren 9an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Lantaldea, aztertzekoa Nafarroako Gobernua eta Gobernu Zentrala behin eta berriz egiten ari diren murrizketak zer ondorio eta kalte ekartzen ari zaizkien herritarrei.

EKONOMIA, OGASUN, INDUSTRIA ETA ENPLEGU BATZORDEAK BAZTER UTZIA

2012ko azaroaren 7an, Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Batzordeak bazter utzi zuen Bikendi Barea Aiestaran jaunak eginiko proposamena, lantalde bat sortzekoa, zeinak aztertu behar baitzuen Nafarroako Gobernua eta Gobernu Zentrala behin eta berriz egiten ari diren

murrizketak zer ondorio eta kalte ekartzen ari zaizkien herritarrei.

Iruñean, 2012ko azaroaren 8an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Lantaldea, aztertzekoa parlamentu-taldeek aurkeztutako tributu- eta zerga-aldaketei buruzko proposamenak.

EKONOMIA, OGASUN, INDUSTRIA ETA ENPLEGU BATZORDEAK ONETSIA

Legebiltzarreko Erregelamenduaren 114. artikuluan ezarritakoa betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean erabakia argitara dadin, lantalde bat sortzekoa, aztertzekoa parlamentu-taldeek aurkeztutako tributu- eta zerga-aldaketei buruzko proposamenak. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Batzordeak onetsi zuen, 2012ko azaroaren 7an egindako bilkuran. Hona testua:

“1. Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Batzordean lantalde bat eratzea, aztertze aldera parlamentu-taldeek aurkeztutako tributu- eta zerga-aldaketei buruzko proposamenak.

2. Adieraztea jakinaren gainean dagoela lantaldeko kideak izendatzeari buruz:

UPN parlamentu-taldea	Carlos García Adanero
SN parlamentu-taldea	Juan José Lizarbe Baztán
NaBai parlamentu-taldea	Juan Carlos Longás García
Bildu-Nafarroa parlamentu-taldea	Maiorga Ramírez Erro
PP parlamentu-taldea	Ana Beltrán Villalba
I-E parlamentu-taldea	José Miguel Nuin Moreno
Atxiki gabeko parlamentaria	Manu Ayerdi Olaizola”

Iruñean, 2012ko azaroaren 7an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

2013rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektua izapidetzeko egutegia aldatzea.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko azaroaren 12an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

2012ko urriaren 31ko erabakia aldatzen da. Hona berria:

“**Lehena.** 2013rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektua izapidetzeko egutegia onestea. Ondotik laburbilduta adierazten da:

- Izapidetzeko onartzea (Mahaiak eta Eledunen Batzarra): urriaren 31.
- Argitaratzea: azaroaren 2a.
- Zuzenketak taxutzeko programari buruzko bilera: azaroaren 5ean, 12:00etan.
- Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Batzardearen lan bilera: azaroaren 7an, 12:00etan.
- Osoko zuzenketak aurkezteko epearen amaiera: azaroaren 19an, 10:00etan.
- Zuzenketa partzialak aurkezteko epearen amaiera: azaroaren 23an, 13:00etan.
- Osoko zuzenketak onartzea: azaroaren 19an.
- Zuzenketa partzialak ordenatzea: azaroaren 23an eta 26an.
- Osoko zuzenketak eztabaidatzeko Osoko Bilkura: azaroaren 22an, 09:30ean.
- Gobernua: azaroaren 27an eta 28an.
- Zuzenketa partzialak onartzea: azaroaren 30ean.
- Batzardeko eztabaida: abenduaren 5etik 14ra.
- Zuzenketei eustea eta boto partikularrak (amaiera): abenduaren 17an, 12:00etan.
- Osoko Bilkura: abenduaren 20an eta 21ean.

Bigarrena. 1. 2013rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektua azaroaren 2ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, eta osoko zuzenketak aurkezteko epea azaroaren 19an bukatuko da, 10:00etan. Artikuluaren eta kontusailen zuzenketak aurkezteko epea azaroaren 23an bukatuko da, 13:00etan. Kontuan hartu beharko da 10:00ak baino lehena-ego egin behar zaizkiela zuzenketak kontusailei, zuzenketen programa informatikoa erabiliz.

2. Zuzenketak aurkezteko epe horren barruan, Ekonomia eta Ogasun Batzardearen lan bilera deituko da, azaroaren 7rako, 12:00etan. Bertan Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Kontseilariak parte hartuko du, egoki deritzen zuzendari nagusi eta teknikariek batera.

3. Osoko zuzenketarik baldin badago, Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Batzardeko Mahaiak izapidetzeko onartuko ditu, eta Parlamentuko lehendakariak bidaliko ditu azaroaren 19an. Balizko osoko zuzenketen eztabaida eta bozketa azaroaren 22ko Osoko Bilkuran egingen da.

4. Azaroaren 23an eta 26an, Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Batzardeko Mahaiak ordenatu egingen ditu artikuluei eta kontusailei aurkeztutako zuzenketak eta, kasua bada, Nafarroako Gobernuari igorriko dizkio gastu-gehikuntza edo diru-sarreraren murrizketa dakarten zuzenketak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 155. artikuluan eta horri loturikoetan adierazitako moduan.

5. Azaroaren 30ean, Batzardeko Mahaiak zuzenketak onartuko ditu; bai eta, kasua bada, Nafarroako Gobernuak txostena egin duenekoak ere.

6. Abenduaren 5ean, Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Batzardeak bilera hasiko du, eta bere eztabaidek abenduaren 14an bukatu beharko dute, egun horretan egingo beharko baitu proiektuari buruzko irizpenak.

Hirugarrena. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.”

Iruñean, 2012ko azaroaren 12an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

